

## Jarduera administratiboak eta Ostalaritza dira, %3 baino gehiagoko igoerekin, Euskal AEko Zerbitzuak gidatu dituztenak 2018ko bigarren hiruhilekoan


***Merkataritzaren salmentak, ibilgailuen salmenta eta konponketa barne, %2,1 gehitu ziren, eta Gainerako Zerbitzuenak %2,2***

Merkataritza (handizkakoa, txikizkakoa, ibilgailuen salmenta eta konponketa) %2,1 gehitu zen 2018ko bigarren hiruhilekoan; Gainerako Zerbitzuak, %2,2. Hori dena, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, termino finkoetan, Eustaten datuen arabera.

### Euskal AEko merkataritzako koiuntura-indizearen eta beste zerbitzuen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak

Merkataritza   Bestelako zerbitzuak



Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiuntura-indizea

Gainerako Zerbitzuetan, prezio finkoetan, %3,3 gehitu zen Jarduera administratibo eta laguntza-zerbitzuen salmenten indizea. Ondoren, %3,2 gehitu zen Ostalaritzarena,

%2,8 Garraio eta bilketaren salmenta-indizea eta %1,6 Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoena. Aldiz, Informazio eta komunikazioena %1,5 jaitsi zen.

Merkataritzan, urte artean, bilakaera positiboa izan da. Oros gain, Motordun ibilgailuen salmenta eta konponketan, non %8,3ko gehikuntza izan baita. Handizkako merkataritzan ere bilakaera positiboa gertatu da, %2,2ko igoerarekin; Txikizkakoan, ordea, %0,1eko jaitsiera izan da.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, igoerak gertatu dira bai Merkataritzan, %0,3koarekin, bai Gainerako Zerbitzuetan, %0,4koarekin, urtaro-eraginak kenduta eta prezio finkoetan.

Lurraldeei dagokienez, hiruretan izan dira gehikuntza errealak Merkataritzan. Araban %3,0ko igoera izan da; Bizkaian, %2,4koa; Gipuzkoan, %1,1ekoa. Gainerako Zerbitzuetan, termino errealetan, Bizkaiko eta Gipuzkoako bilakaerak positiboak izan dira bigarren hiruhilekoan, %3,3 eta %1,1eko igoerekin, hurrenez hurren. Araban, ordea, indizean ez da aldakuntzarik izan (%0,0). Betiere 2017ko bigarren hiruhilekoaren aldean eta prezioen eraginik gabe.

Euskal AEn langile okupatuak %1,4 gehitu dira Merkataritzan eta %2,8 Gainerako Zerbitzuetan, urte artean. 2018ko lehen hiruhilekoaren aldean, indizea %0,5 gehitu da bi sektoreetan, urtaroen eraginik gabe.

Lehen sei hiletan, Merkataritza %2,4 gehitu da, prezioen eragina kenduta. Gainerako Zerbitzuak %2,5 gehitu dira, non igoerarik handiena izan den Jarduera administratibo eta laguntza-zerbitzuena, %4,5eko gehikuntza metatuarekin momentuz aurtan.

## 1. taula. Euskal AEko zerbitzuen koiantura-indizea. Urte arteko eta hiruhile arteko aldakuntza-tasa (p). II/2018

	PREZIO FINKOAK	
	t / t-4	t / t-1
<b>Merkataritza</b>	<b>2,1</b>	<b>0,3</b>
Ibilgailu motordunen salmenta eta konponketa	8,3	0,0
Handizkako merkataritza	2,2	-0,5
Txikizkako merkataritza	-0,1	0,1
<b>Bestelako zerbitzuak</b>	<b>2,2</b>	<b>0,4</b>
Garraioa eta biltegiatzea	2,8	0,4
Ostalaritza	3,2	0,7
Informazioa eta komunikazioak	-1,5	-1,7
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	1,6	-0,1
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	3,3	-0,4
<b>Araba/Álava</b>		
Merkataritza	3,0	0,1
Bestelako zerbitzuak	0,0	0,1
<b>Bizkaia</b>		
Merkataritza	2,4	0,9
Bestelako zerbitzuak	3,3	0,3
<b>Gipuzkoa</b>		
Merkataritza	1,1	-0,7
Bestelako zerbitzuak	1,1	0,9
<b>ENPLEGU INDIZEA</b>		
<b>Euskal AE</b>		
Merkataritza	1,4	0,5
Bestelako zerbitzuak	2,8	0,5

t / t-4 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhile arteko aldakuntza. Datu desestazonalizatuak

**Iturria: Eustat. Zerbitzuen koiantura-indizea**

### Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62